

-KOSTU EGITURA:

Gela klimatizatu adimendunaren proiektua martxan jartzeko hainbat gastu izan behar ditugu kontuan. Alde batetik, kostu finkoak daude, hau da, beti ordaindu behar direnak: webgunea mantentzea, programa informatikoa eguneratzea eta proiektuan lan egiten duten pertsonen soldata. Bestetik, kostu aldagarriak ditugu, bezero gehiago edo gutxiago ditugun arabera aldatzen direnak, adibidez sentsoareak, argiak, soinu-sistemak, bestelako materialak eta geletan egiten diren instalazio-lanak.

Gainera, proiektuak hasieran diru asko behar du, sistema adimenduna sortzeko, probak egiteko eta beharrezko teknologia erosteko. Horrez gain, ingurumenarekin lotutako kostuak ere kontuan hartzen ditugu, energia gutxiago erabiltzeko eta geletan bizi diren pertsonen ongizatea hobetzeko. Gela gehiago instalatzen diren heinean, gastu bakoitza txikiagoa izango da, eta horrela proiektua errentagarriagoa bihurtuko da. Gure proiektua ez da merkea izateagatik nabarmentzen, baizik eta kalitate handia eta pertsonen beharrak kontuan hartzen dituelako.